

4/2012 Legea, uztailaren 6koa, turismo-ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kontratuei, birsaltze-kontratuei eta truke-kontratuei eta zerga-arauei buruzkoa.

BOE, 162 zk., 2012-07-07koa

JUAN CARLOS I.a
ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikus eta uler dezaten gutzietan.

Jakizue:

Gorte Nagusiek ondoko lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

I

Turismoaren garapenetik sortu diren harreman ekonomiko eta juridikoen eraginez, sektore hori fenomeno unibertsal bihurtu da, eta, bertan, mundu osoko herritar eta eragileak turismo-zerbitzuen hartzaille edo emaile bihurtu dira.

Dinamismoa, etengabeko bilakaera eta merkatura egokitzeko gaitasuna dira zerbitzu horien ezaugarri nagusiak, baina baita nazioartean duten garrantzia eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten eragile ekonomikoen eta horiek jasotzen dituzten kontsumitzaileen arteko interesen gatazka edo konkurrentzia ere.

Multijabetzari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1994ko urriaren 26ko 1994/47/EE Zuzentarauak barne hartzen zuen erregulazioa nabarmendu behar da. Zuzentaru hori denbora partekatuko erregimeneko higiezinak erabiltzeko eskubidea eskuratzeko kontratuen zenbait alderdiren inguruan eskuratzailleak babesteari buruzkoa da, eta denbora partekatuko erregimeneko higiezin bat edo gehiago erabiltzeko eskubidea zuzenean edo zeharka eskuratzera zuzendutako kontratua bakarrik aurreikusi zuen.

Estatu kideen zuzenbideak bateratzea zen arau horren helburua, horretarako –hau da, eskuratzailleen babesa hobetu ahal izateko–, gutxieneko arau orokor batzuk finkatuta. Ondorioz, horrela, kontratuan jaso beharreko informazioa, kontratuaren gutxieneko edukia, hura idazteko erabiliko den hizkuntza, uko egiteko eskubidea, aurrerakinak ordaintzeko debekua eta

Ley 4/2012, de 6 de julio, de contratos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, de adquisición de productos vacacionales de larga duración, de reventa y de intercambio y normas tributarias.

BOE, nº 162, de 7-07-2012

JUAN CARLOS I
REY DE ESPAÑA

A todos los que la presente vieren y entendieren

Sabed:

Que las Cortes Generales han aprobado y Yo vengo en sancionar la siguiente ley.

PREÁMBULO

I

Las relaciones económicas y jurídicas derivadas del desarrollo del turismo han llevado a este sector a constituir un fenómeno universal en el que ciudadanos y operadores de todo el mundo son hoy receptores o prestadores de servicios turísticos.

Tales prestaciones se han caracterizado por su dinamismo, constante evolución y adaptación a las circunstancias del mercado, por su dimensión internacional y por la concurrencia o conflicto de intereses entre los operadores económicos prestadores de dichos servicios y los consumidores que los reciben.

En lo que se refiere a la multipropiedad ha de destacarse la regulación que se incluía en la Directiva 1994/47/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de octubre de 1994, relativa a la protección de los adquirentes en lo relativo a determinados aspectos de los contratos de adquisición de un derecho de utilización de inmuebles en régimen de tiempo compartido, la cual contempló exclusivamente el contrato dirigido, directa o indirectamente, a la adquisición de un derecho de utilización de uno o más inmuebles en régimen de tiempo compartido.

Esta norma respondía a una finalidad armonizadora de los Derechos de los Estados miembros, estableciendo una base mínima de normas comunes al objeto de mejorar la protección a los adquirentes, la cual se materializó en la información, contenido mínimo del contrato, lengua de su redacción, derecho de desistimiento y prohibición del pago de anticipos en el plazo de



finantzaketa-mailegu batzuen eraginkortasunik eza finkatu ziren.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urtarrilaren 14ko 2008/122/EE Zuzentarauak, turismo-erabilerako ondasun higiezin txandakako aprobetxamendu-, iraupen luzeko opor-produktuen erosketa-, eta horien birsalmenta- eta truke-kontratuetakoz zenbait alderdiri dagokionez, kontsumitzailea babesten duenak, 1994/47/EE Zuzentzaraua indargabetzen du.

Zuzentzarau berriak opor-produktu berrien sorrera du oinarri –zehaztasunez definitzen ditu–; gainera, hutsuneak betetzen ditu, Estatuaren barne-ordenamenduen bateratzea handitzen du, kontsumitzailearentzako informazioa indartzen du, uko egiteko eskubidea baliatzeko epeak zehaztasun handiagoz arautzen ditu, eskubide hori baliatzeko epean aurrerakinak ordaintzeko debekua azpimarratzen eta areagotzen du, iraupen luzeko kontratuetakozko ordainketa-egutegi bat exijitzen du eta uko egiten denerako finantzaketa-mailegu jakin batzuen eraginkortasunik eza zehazten du.

Zuzentzarauaren arabera, estatuek kontsumitzaileek dituzten eskubideen konponketa judiziala eta administratiboa antolatu eta jokabide-kodeen sorrera sustatu beharko dute, judizioz kanpoko prozedura egoki eta eraginkorrak sortu eta garatu beharko dituzte, kontsumoaren arloko liskarrak konpontzeko, eta disuasio-zehapen eraginkor eta egokien sistema finkatu beharko dute zuzentzarau hau garatzen duten nazio-xedapenak betetzen ez dituzten enpresariak zehatzeko.

II

1994/47/EE Zuzentzaraua abenduaren 15eko 42/1998 Legearen bidez ekarri zen gure antolamendu juridikora; lege hori, turismo-erabilerako ondasun higiezin txandakako aprobetxamendu-eskubideei eta zerga-arauei buruzkoa da.

Legeak izendapen hori hartu zuen eta «multijabetzarena» alde batera utzi zuen, ez baitzen egokia.

Orduan, formula instituzional batzuk edo bakarra arautu behar ote zen planteatu zuen legegileak, gainerako guztiak legeaz kanpo utzita. Azkenik, tarteko formula bat hautatu zuen: eskubide errealek berri bat modu zehatuan arautzea, baina, eskubidea denboraldi bateko errentamenduaren aldagai gisa eratuta.

su ejercicio e ineficacia de determinados préstamos de financiación.

La Directiva 2008/122/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de enero de 2009, relativa a la protección de los consumidores con respecto a determinados aspectos de los contratos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, de adquisición de productos vacacionales de larga duración, de reventa y de intercambio, deroga la Directiva 1994/47/CE.

La nueva Directiva se fundamenta en la aparición de nuevos productos vacacionales que define con precisión; asimismo, completa lagunas, amplía la armonización de los ordenamientos internos de los Estados, refuerza la información al consumidor, regula con mayor precisión los plazos de ejercicio del derecho de desistimiento, insiste y amplía la prohibición de pago de anticipos durante el plazo de ejercicio de tal derecho, exige un calendario de pagos para los contratos de larga duración y determina la ineficacia de determinados préstamos de financiación para el caso de desistimiento.

Asimismo, la Directiva obliga a los Estados a organizar la reparación judicial y administrativa de los derechos de los consumidores, a fomentar la elaboración de códigos de conducta, a hacer posible la creación y desarrollo de procedimientos extrajudiciales adecuados y efectivos para la solución de los litigios en materia de consumo y a establecer un sistema de sanciones efectivas, proporcionadas y disuasorias en caso de incumplimiento por los empresarios de las disposiciones nacionales que desarrollen esta Directiva.

II

La transposición de la Directiva 1994/47/CE a nuestro ordenamiento jurídico se hizo por la Ley 42/1998, de 15 de diciembre, sobre derechos de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles de uso turístico y normas tributarias.

Adoptó la ley esta denominación, rechazando por inadecuada la de «multipropiedad».

El legislador se planteó entonces si debían regularse varias formas institucionales o si se debía limitar su regulación a una sola, dejando fuera de la ley todas las demás; se optó por una fórmula intermedia, consistente en la detallada regulación de un nuevo derecho real, permitiendo, no obstante la configuración del derecho como una variante del arrendamiento de temporada.



Bestalde, abenduaren 15eko 42/1998 Legea, Zuzentarauaren transposizioa zehatz-mehatz jasotzeaz gain, erakundearen arauketa osoa jasotzen ahalegindu zen.

Gero, abenduaren 15eko 42/1998 Legearen ondare higiezin txandakako aprobetxamenduen eraketa-erregimen bereziak aholkatu zuen ez sartzea hura azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bateginean.

Gainera, berezitasun horrek eragin handia zuen erregistroaren eta zergen arloan, kontsumitzaileak babesteko oinarrizko nukleotik at daudenean.

Nolanahi ere, testu bategin horren araudi nagusia aplikagarri zaio gaiari.

III

Aurrekari horiek oinarriztat hartuta, arau berri horretatik testu bategin bat egitea erabaki da, honako hauek barnean hartuko dituena: 2008/122/EE Zuzentarauaren transposizioa (I. titulua) eta 42/1998 Legea (II. eta III. tituluak), Zuzentarauari beharrezko egokitzapenak eginda.

42/1998 Legearekin jarraitutako irizpide berari eutsi zaio; alegia, 1994/47/EE Zuzentzarauko transposizio-arauetz gain, Espainiako Zuzenbidearenak berarenak ere gaineratzea.

Arauen aniztasuna eta gerta litezkeen antinomiak saihestea da konponbide horren helburua.

I. tituluaren zuzentarauaren transposizioa jorratu da zazpi kapitulutan.

I. kapituluaren arauaren aplikazio-eremua mugatzera bideraturiko xedapenak jasotzen dira.

Eremu objektiboan lau kontratu moten definizioa jaso da; kontratuok, zuzentarauaren baldintza beretan arautu dira eta honako hauek dira: turismo-erabilerako ondasunen txandakako aprobetxamendu-kontratua, iraupen luzeko opor-produktuak erosteko kontratua, birsimenta-kontratua eta truke-kontratua.

Turismo-erabilerako ondasunen aprobetxamendu-kontratuaren definizioak ondasun higiezin kontratuak eta ontzietan eta karabanetan ostatu hartzeari buruzko kontratuak hartzen ditu barnean, besteak beste.

Bestalde, ez ditu ostatu bati buruzkoak ez diren bestelako kontratuak biltzen, karabanentzako lurren alokairuari buruzkoak, esate baterako; era berean, ez ditu hotel-logelak hainbat urterako

Por otra parte la Ley 42/1998, de 15 de diciembre, no se limitó a la transposición estricta de la Directiva, sino que procuró dotar a la institución de una regulación completa.

Posteriormente, el peculiar régimen de constitución de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles de la Ley 42/1998, de 15 de diciembre, desaconsejó su inclusión en el texto refundido de la Ley General para la Defensa de Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre.

Peculiaridad que poseía, además, una indudable influencia en los ámbitos registral y fiscal, ajenos al núcleo básico de protección de los consumidores.

No obstante, es aplicable a la materia el núcleo normativo central de dicho texto refundido.

III

Sobre la base de estos antecedentes, en esta nueva norma se ha optado por elaborar un texto unificado, que comprenda tanto la transposición de la Directiva 2008/122/CE, en el título I, como la incorporación de la Ley 42/1998, en los títulos II y III, con las adaptaciones que requiere dicha Directiva.

Se sigue el mismo criterio de la Ley 42/1998, que había incorporado en su texto, no solo las normas de transposición de la Directiva 1994/47/CE, sino las propias del Derecho español.

Esta solución trata de evitar la pluralidad de normas y posibles antinomias.

El título I se ocupa de la transposición de la Directiva a lo largo de siete capítulos.

El capítulo I contiene las disposiciones destinadas a delimitar el ámbito de aplicación de la norma.

El ámbito objetivo recoge la definición de las cuatro figuras contractuales, reguladas en los mismos términos que la Directiva y que son los contratos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, de adquisición de productos vacacionales de larga duración, de reventa e intercambio.

La definición del contrato de aprovechamiento de bienes de uso turístico da cobertura no sólo a los contratos sobre bienes inmuebles, sino también a los contratos relativos a un alojamiento en embarcaciones y caravanas, por ejemplo.

En cambio, no quedan incluidos otros contratos que no se refieren a un alojamiento, como los de alquiler de terrenos para caravanas; tampoco incluye fórmulas tales como las reservas



erreserbatzeko formulak gaineratzen, horiek ez baitira kontratuak, kontsumitzailearentzat lotesleak ez diren erreserbak baizik.

Iraupen luzeko opor-produktuen kontratuen kasuan, kontsumitzaileak ostatuan beherapenak edo bestelako abantailak jasotzeko eskubidea bereganatzen du, modu isolatuan nahiz beste bidaia edo zerbitzu batzuekin batera.

Horrenbestez, eskubide hori kontrapartida baten truke lortzen da eta opor-beherapenen klubak eta produktu analogoak hartzen ditu barnean.

Ez die estaldurarik ematen hotel-kateetako establezimenduetan etorkizunerako egonaldietarako beherapenak eskaintzen dituzten leialtze-programei, ezta urtebete baino gutxiagoko epean eskainitako beherapenei edo beherapen puntualei ere.

Era berean, ez ditu biltzen helburu nagusi gisa beherapenak edo hobariak eskaintzea ez duten kontratuak.

Birsalmenta-kontratuak barnean hartzen ditu turismo-erabilerako ondasunen txandakako aprobetxamendu-eskubide bat edo iraupen luzeko opor-produktu bat artesari edo komisio baten truke saldu edo erosi nahi duen kontsumitzailearen eta birsalmenta-agentearen arteko bitartekaritza-kontratuak.

Enpresari batek bitartekari gisa jarduten ez duenean, hau da, txandakako aprobetxamendu-eskubide bat edo iraupen luzeko opor-produktu bat erosi, eta gero hura kontsumitzaileari birsaltzen dionean, kontratua eskubide edo produktu hori saltzekoa izango da eta hori 2. eta 3. artikuluetan dago jasota, hurrenez hurren, agindu horiek ez baitira lehen eskuko erosketetara mugatzen.

Trukearen definizioak truke-sistema batean parte hartzeko kontratuak biltzen ditu.

Eremu subjektiboaren mugaketa desberdina dela nabarmendu behar da. Izan ere, I. titulua, zuzentaraua bezala, enpresarien eta kontsumitzaileen arteko kontratuei aplikatzen zaie, eta II. titulua, ordea, 42/1998 Legea bezala, enpresarien arteko kontratuei; enpresaritzat joko dira jabe, sustatzaile edo ondasun higiezin txandakako aprobetxamendu-eskubideen eskualdaketan modu profesionalean diharduten pertsona fisiko edo juridikoak, eta eskubide horiek eskuratzen dituztenak.

plurianuales de una habitación de hotel, en la medida en que no se trata de contratos, sino de reservas que no son vinculantes para el consumidor.

El contrato de producto vacacional de larga duración consiste básicamente en que el consumidor adquiere el derecho a obtener descuentos u otras ventajas en el alojamiento, de forma aislada o en combinación con viajes u otros servicios.

En consecuencia, este derecho se obtiene a cambio de una contrapartida e incluye a los clubes de descuentos vacacionales y productos análogos.

No da cobertura a los programas de fidelización que ofrecen descuentos para futuras estancias en establecimientos de una cadena hotelera, ni a los descuentos ofrecidos durante un plazo inferior a un año o a los descuentos puntuales.

Tampoco incluye los contratos cuyo propósito principal no sea ofrecer descuentos o bonificaciones.

El contrato de reventa abarca los contratos de intermediación concluidos entre un agente de reventa y un consumidor que desea vender o comprar un derecho de aprovechamiento por turno de un bien de uso turístico o un producto vacacional de larga duración, a cambio de un corretaje o comisión.

Cuando un empresario no actúa como intermediario, sino que compra un derecho de aprovechamiento por turno o de un producto vacacional de larga duración y posteriormente lo revende a un consumidor, el contrato es de venta de este derecho o producto y está comprendido, respectivamente, en los artículos 2 y 3, toda vez que dichos preceptos no se limitan a las ventas de primera mano.

La definición de intercambio da cobertura a los contratos de participación en un sistema de intercambio.

Destaca la distinta delimitación del ámbito subjetivo, en cuanto que el título I, de forma análoga a la Directiva, se aplica a los contratos entre empresarios y consumidores, mientras que el título II, al igual que la Ley 42/1998, se aplica a los contratos entre empresarios, entendidos como propietarios, promotores o cualquier persona física o jurídica que se dedique profesionalmente a la transmisión de derechos de aprovechamiento de bienes inmuebles, y los adquirentes de estos derechos.



II. kapituluaren kontratuaren aurretiko informazioari eta publizitateari buruzko Zuzentzarauaren arauak jaso dira, kontsumitzaileak uko egiteko duen eskubidea eta eskubide horrek diharduen bitartean aurrerakinak ordaintzearen debekuari erreferentzia berezia eginda.

Kontratuaren aurretiko informazioa emateko moduari dagokionez, Europako arauak erabateko harmonizazioa bilatzen du, eta, horretarako, formulario normalizatu jakin batzuk betetzea eskatzen du. Formulario horiek arau honetako eranskinetan daude.

III. kapituluaren formari dagokion zuzentzarauaren zatia jaso da –paperean, idatziz, edo beste euskarri iraunkor batean–, baita hura idazteko erabili diren hizkuntzak, eta kontratuaren aurretiko informazioa txertatuko den kontratuaren edukia ere.

IV. kapituluaren uko egiteko eskubidea arautu da, ad nutum izaera bakarrek eskubide gisa, eta horretarako arrazoiak eman beharrik izan gabe; eta hori, enpresariak kontratuaren aurretiko informazioa behar bezala eskaini, nahiz hura ezkutatu edo informazio nahikoa eman ez arren.

Ez dira izaera desberdineko bi eskubide, izaera bakarrek baizik, eskubidea baliatzeko epearen zenbaketa bakarrik aldatzen baita bi kasuetan.

Hala, 2008/122/EE Zuzentzarauaren irizpide berari eusten zaio, bertsiotutako frantsesean eta ingelesean «se retracter» eta «withdraw» terminoak erabiltzen dituenarena.

Hala, alde batera uzten du 1994/47/EE Zuzentzarauaren dualismoa, termino horiek ad nutum uko egiteko erabiltzen zituena, enpresariak informazioa behar bezala aurkezten zuen kasuetan; bestalde, frantsesezko eta ingelesezko «résiliation» eta «cancelation» terminoak erabiltzen zituen, hurrenez hurren, kontratuaren aurretiko informazio-gabeziaren edo informazio okerraren kasuetarako.

Tratamendu bateratu horren bidez, bukatutzat ematen da 1994/47/EE Zuzentzarauaren gaztelaniazko itzulpenak sortutako nahasketa, bertan «resolución» hitza erabiltzen baitzen (indargabetu), abenduaren 15eko 42/1998 Legea eraman zena; hark, «uko egiteko» (desistimiento) sistema duala aplikatu zuen informazio zuzena ematen zen kasuetarako, eta «indargabetzea» (resolución) kontratuaren aurretiko informazio-gabezia edo informazio okerra ematen zen kasuetarako.

Uko egiteko eskubidea baliatzeko epean kontsumitzailearen konturako ordainketak edo

El capítulo II traspone las normas de la Directiva sobre publicidad e información precontractual con especial referencia al derecho del consumidor al desistimiento, así como a la prohibición de pagar anticipos durante el plazo de ejercicio de tal derecho.

En cuanto al modo de facilitar la información precontractual, la norma europea busca una total armonización al exigir la utilización de determinados formularios normalizados que se incorporan mediante los correspondientes anexos de esta norma.

El capítulo III transpone la Directiva sobre forma, por escrito en papel o en otro soporte duradero, precisando la lengua o lenguas de su redacción, y contenido del contrato al que se incorpora la información precontractual.

El capítulo IV regula el desistimiento como un derecho de naturaleza única «ad nutum», sin expresión de motivos; y ello, tanto si el empresario hubiera facilitado correctamente la información precontractual, como si la hubiere omitido o lo hubiera hecho de manera insuficiente.

No se trata de dos derechos de naturaleza diferente, sino única; y solo varía en ambos supuestos el cómputo de los plazos de ejercicio del derecho.

Con ello se asume el criterio de la Directiva 2008/122/CE que en sus versiones francesa e inglesa utiliza los términos «se retracter» y «withdraw», respectivamente.

Y acaba con el dualismo de la Directiva 1994/47/CE que utilizaba dichos términos para el desistimiento «ad nutum», cuando el empresario facilitó correctamente la información; utilizando, sin embargo, para los supuestos de falta o incorrecta información precontractual los términos «résiliation» y «cancelation», en francés e inglés respectivamente.

Con este tratamiento unitario se acaba con la confusión suscitada por la traducción española de la Directiva 1994/47/CE que había utilizado la palabra «resolución», lo que se trasladó a la Ley 42/1998, de 15 de diciembre, que aplicó el sistema dual de «desistimiento» para los casos de información correcta y «resolución» para los de falta o incorrecta información precontractual.

Son también transposición de la Directiva las normas sobre prohibición de anticipos o pagos a



aurrerakinak debekatzeari buruzko arauak ere zuzentarauaren transposizioa dira; baita uko egiten denean kontratu osagarriek duten eraginkortasunik eza –baita maileguk ere–, eta iraupen luzeko opor-produktuen kontratueterako mailaz mailako ordainketa-planak antolatu beharra ere.

V. kapituluan, «erregimen juridikoa» deiturikoan, titulu honetan jasotzen diren xedapenen agindu-izaera adierazten da; hori behar bezala islatzen da kontsumitzaileak arauak ematen dizkion eskubideei uko egiteko ekintzen baliogabetasun-zehapenean eta lege-iruzurrengatik zehapenetan, Kode Zibileko 6. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak ere jasotzen dira kapitulu horretan.

Oro har, I. tituluan jasotzen diren kontratuei aplikatu beharreko zuzenbidea kontratueterako betebeharrei aplikatu beharreko legerari buruzko (Erroma I) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko ekainaren 17ko 593/2008 (EE) Erregelamendua da, haren 6. artikuluan nazioarteko kontsumo-kontratuei aplikatu beharreko legerari dagozkion irizpideak jasotzen baitira.

Erregelamendu horri jarraiki, hirugarren herrialde bateko legeria aplikagarria izan daiteke, esaterako enpresariak kontsumitzaileengana zuzentzen direnean haien beren bizilekua ez den beste herrialde batean daudenean. Horregatik, zuzentarauak babes gehigarri bat jasotzen du, estatu kideetako organo jurisdikzional batek kontratuan eskumena duenean, kontsumitzaileak Europako arau horren babesa izan dezan; horregatik, gure ordenamendu juridikoan txertatu da aipatutako babes hori.

VI. Kapituluaren, enpresariak kontsumitzaileari eman beharreko informazioari buruzko aurreikuspenak jaso dira –informazio orokorra eta jokabide-kodeei buruzko informazioa–, eta enpresariaren eta kontsumitzailearen artean sor daitezkeen arazoak arbitrajearen mende jar daitezkeela adierazten da.

«Babes judiziala eta administratiboa» izeneko VII. kapituluaren, bertan behera uzteko akzioa eta zehapen-erregimena arautzen dira, eta legeria orokorra eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen legeria zehatza aipatzen dira.

«Turismo-erabilerako ondasun higiezin txandakako aprobetxamendu-eskubideei buruzko arau bereziak» izenburupean, II. tituluan 42/1998 Legea jasotzen da, Zuzentarauaren eskakizunen araberako egokitzapenak eginda.

cargo del consumidor durante el plazo de ejercicio del derecho a desistir, así como la ineficacia de los contratos accesorios, incluso los préstamos, en caso de desistimiento, y la necesidad de organizar un plan escalonado de pagos para los contratos de productos vacacionales de larga duración.

El capítulo V, bajo el epígrafe «régimen jurídico», declara el carácter imperativo de las disposiciones contenidas en este Título, que se refleja en la sanción de nulidad de los actos de renuncia por el consumidor a los derechos que le confiere la norma, así como de aquellos realizados en fraude de ley de acuerdo con lo previsto en el artículo 6 del Código Civil.

También se recogen en este capítulo las normas de Derecho Internacional Privado.

Con carácter general, la determinación del Derecho aplicable a los contratos comprendidos en el título I, es el Reglamento (CE) n.º 593/2008, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de junio de 2008, sobre ley aplicable a las obligaciones contractuales (ROMA I), el cual, en su artículo 6 establece los criterios relativos a la ley aplicable a los contratos internacionales de consumo.

Ahora bien, dado que en virtud de este Reglamento, la legislación de un tercer país puede ser aplicable, concretamente cuando los empresarios se dirigen a los consumidores mientras estos se encuentran en un país distinto de su país de residencia, la Directiva contiene una salvaguardia adicional cuando tenga competencia sobre el contrato un órgano jurisdiccional de los Estados miembros, a fin de garantizar que el consumidor no se vea privado de la protección de esta norma europea; salvaguardia que es incorporada a nuestro ordenamiento jurídico.

El capítulo VI contiene previsiones acerca de la información ¿de carácter general y sobre la eventual existencia de códigos de conducta¿ que los empresarios han de facilitar al consumidor y regula la posibilidad de someter a arbitraje los conflictos que surjan entre empresarios y consumidores.

El capítulo VII, bajo la rúbrica «tutela judicial y administrativa», regula la acción de cesación y el régimen sancionador, con remisión a la legislación general y a la especial de consumidores y usuarios.

El título II bajo el rótulo «normas especiales sobre derechos de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles de uso turístico», incorpora la Ley 42/1998 con las necesarias adaptaciones de su texto a las exigencias de la Directiva.



Gainera, Erkidegoko Erregelamenduen eskakizunei jarraiki, Erroma I Erregelamenduari jarraiki batik bat, lege horretan zehazten den tarteko bidearen helburua txandakako aprobetxamendu-eskubide erreala xehetasunez arautu eta eskubide hori denboraldi baterako errentamenduaren aldaera gisa konfiguratu dadin ahalbidetzea da; hala, hainbat kontratu-modalitate egin ahal izango dira izaera pertsonaleko edo elkarte-izaerako eskubidea eratzeko, baina okupazio-aldi batean baino gehiagotan gaua igarotzeko ostatu hartzea izango da horien guztien helburua. Gainera, lege honetako xedapenak eta kontsumitzailea babesten duen legeria orokorreko xedapenak aplikatu beharko dira.

Azkenik, III. tituluak I. tituluaren araututako eskubideei aplikagarri zaizkien zerga-arauak eguneratzen ditu.

I. TITULUA **Arau orokorrak**

I. KAPITULUA **Aplikazio-eremua**

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Turismo-erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko eskubideak eta iraupen luzeko opor-produktuak merkaturatu, saldu eta birsaltzeko kontratuak eta truke-kontratuak, Lege honetan jasotakoaren arabera arautzen dira horiek enpresari eta kontsumitzaile baten artean gauzatzen direnean.

2. Enpresaria izango da bere jarduera ekonomikoarekin, negozioekin, ofizioarekin edo lanbidearekin zerikusia duten helburuak lortzeko diharduen edozein pertsona fisiko edo juridiko nahiz enpresari baten izenean edo kontura diharduen edozein pertsona.

3. Kontsumitzailea izango da, bere jarduera ekonomikoarekin, negozioarekin, ofizioarekin edo lanbidearekin zerikusirik ez duten helburuak lortzeko diharduen edozein pertsona fisiko edo juridiko.

2. artikulua. Turismo-erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratua.

Turismo-erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratutzat joko da urtebetetik gorako iraupena duen kontratua, haren arabera, kontsumitzaileak okupazio-aldi batean baino gehiagoan gaua igarotzeko ostatu bat edo gehiago erabiltzeko eskubidea kostu bidez eskuratzen duenean.

Además, por imperativo de los Reglamentos Comunitarios, en particular el Reglamento ROMA I, la vía intermedia establecida en dicha Ley, consistente en regular detalladamente el derecho real de aprovechamiento por turno y permitir la configuración de este derecho como variante del arrendamiento de temporada, se abre para acoger cualquier otra modalidad contractual de constitución del derecho de naturaleza personal o de tipo asociativo, que tenga por objeto la utilización de uno o varios alojamientos para pernoctar durante más de un periodo de ocupación, a las que resultarán aplicables las disposiciones de esta Ley y de la legislación general de protección del consumidor.

Por último, el título III actualiza las normas tributarias aplicables a los derechos regulados en el título I.

TÍTULO I **Normas generales**

CAPÍTULO I **Ámbito de aplicación**

Artículo 1. Ámbito de aplicación.

1. Los contratos de comercialización, venta y reventa de derechos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico y de productos vacacionales de larga duración, así como los contratos de intercambio, se rigen por lo dispuesto en esta Ley cuando se celebren entre un empresario y un consumidor.

2. Se entiende por empresario toda persona física o jurídica que actúe con fines relacionados con su actividad económica, negocio, oficio o profesión y cualquier persona que actúe en nombre o por cuenta de un empresario.

3. Se entiende por consumidor toda persona física o jurídica que actúe con fines ajenos a su actividad económica, negocio, oficio o profesión.

Artículo 2. Contrato de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico.

Se entiende por contrato de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico aquel de duración superior a un año en virtud del cual un consumidor adquiere, a título oneroso, el derecho a utilizar uno o varios alojamientos para pernoctar durante más de un período de ocupación.



3. artikulua. Iraupen luzeko opor-produktuen kontratua.

Iraupen luzeko opor-produktuen kontratatutako joko da urtebetetik gorako iraupena duen kontratua, haren arabera, kontsumitzaileak, ostatuari lotutako beherapenak edo abantailak lortzeko eskubidea kostu bidez eskuratzen duenean, ostatuari dagokionez bakarrik edo bidaia edo beste zerbitzu batzuekin batera.

4. artikulua. Kontratuen iraupena kalkulatzeko.

Legegintzako errege-dekretu honetako 2. eta 3. artikuluetan definitutako kontratuen iraupena kalkulatzeko, kontratua isilean berritzeko edo luzatzeko aukera emango duen kontratuko edozein xedapen hartuko da kontuan.

5. artikulua. Birsalmenta-kontratua.

Birsalmenta-kontratuen bitartez, enpresariak, kostu bidez lagunduko dio kontsumitzaileari turismo-erabilerako ondasunen txandakako aprobetxamendu-eskubideak edo iraupen luzeko opor-produktuak erosten edo saltzen.

6. artikulua. Truke-kontratua.

Truke-kontratutzat jotzen da hura baliatuta kontsumitzailea kostu bidez truke-sistema bati atxikitzen zaion kontratua, haren bitartez ostatuaz edo bestelako zerbitzu batzuek gozatzeko aukera duenean, beste pertsona batzuei turismo-erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko bere kontratutik eratorritako eskubideen abantailak aldi baterako ematearen truke.

II. KAPITULUA

Kontratuaren aurretiko informazioa eta publizitatea

7. artikulua. Publizitatea.

1. Publikoarentzat irekita dauden establezimenduetan eta merkataritza-komunikazioetan jarritako iragarpen eta eskaintzetan, eta turismo-erabilerako ondasunen txandakako aprobetxamendu-eskubideak edo iraupen luzeko opor-produktuak erosi, birsaldu edo trukatzeko kontratuei buruzko publizitatean behar bezala agertuko da lege honetan aurreikusitako kontratuaren aurretiko informazioa non lor daitekeen.

2. Kontsumitzaileari lege honetan araututako kontratuen bat eskaintzen zaion sustapen- edo salmenta-ekitaldietan, argi eta garbi adieraziko da ekitaldi horren izaera eta merkataritza-helburua.

Artículo 3. Contrato de producto vacacional de larga duración.

Se entiende por contrato de producto vacacional de larga duración aquel de duración superior a un año en virtud del cual un consumidor adquiere, a título oneroso, esencialmente el derecho a obtener descuentos u otras ventajas respecto de su alojamiento, de forma aislada o en combinación con viajes u otros servicios.

Artículo 4. Cálculo de la duración de los contratos.

Para calcular la duración de los contratos definidos en los artículos 2 y 3 se tendrá en consideración cualquier disposición del contrato que permita la renovación o prórroga tácita.

Artículo 5. Contrato de reventa.

Se entiende por contrato de reventa aquel en virtud del cual un empresario, a título oneroso, asiste a un consumidor en la compra o venta de derechos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico o de un producto vacacional de larga duración.

Artículo 6. Contrato de intercambio.

Se entiende por contrato de intercambio aquel en virtud del cual un consumidor se afilia, a título oneroso, a un sistema de intercambio que le permite disfrutar de un alojamiento o de otros servicios a cambio de conceder a otras personas un disfrute temporal de las ventajas que suponen los derechos derivados de su contrato de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico.

CAPÍTULO II

Publicidad e información precontractual

Artículo 7. Publicidad.

1. En los anuncios y ofertas exhibidos en los establecimientos abiertos al público, así como en las comunicaciones comerciales y demás publicidad sobre los contratos de adquisición de derechos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico o productos vacacionales de larga duración, o su reventa o intercambio, deberá constar dónde puede obtenerse la información precontractual prevista en esta Ley.

2. En toda invitación a cualquier acto promocional o de venta en que se ofrezca a un consumidor directamente alguno de los contratos regulados en esta Ley, deberá indicarse claramente la finalidad comercial y la naturaleza de dicho acto.



Lege honetan aurreikusitako kontratuaren aurretiko informazioa kontsumitzailearen eskura egongo da, uneoro, sustapen-ekitaldian zehar.

3. Turismo-erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko eskubideak eta iraupen luzeko opor-produktuak ezin izango dira inbertsio gisa merkaturatu edo saldu.

8. artikulua. Informazioaren eskakizunak.

Lege honen arabera, kontratuaren aurretik nahiz hura formalizatu ahal izateko edo hura indarrean den bitartean kontsumitzaileari eskaini beharreko informazioa paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan jasoko da.

Euskarri iraunkortzat jotzen da kontsumitzaileari edo enpresariari zuzenean helarazi zaion informazioa biltzeko aukera ematen dion tresna oro, etorkizunean hura kontsultatu ahal izateko, beharrezkoa den bitartean, informazioaren xedea aintzat hartuta, eta bestalde, aldaketarik gabe erreproduzitzeko aukera emango diona.

Agindu honen aurreko lerrokadan jasotako aurreikuspenak betetzen ez badira, kontsumitzaileak kontratu-harremana amaitu ahal izango du; horretarako, nahikoa izango da enpresariari modu fidagarrian jakinaraztea – kontsumitzaileak ez-proporzionatu edo urri deritzon informazio-falta azalduko da–, eta enpresariak izango du informazioa badagoela eta nahikoa dela frogatzearen karga. Hori guztia, lege honetan araututako uko egiteko eskubideari eta, 22. artikuluaaren arabera, enpresariari ezar dakizkikeen zigorrei kalterik egin gabe.

9. artikulua. Kontratuaren aurretiko informazioa.

1. Kontsumitzaileak titulu honetan aipatzen diren kontratuen edozein eskaintzari baiezkota eman aurretik, eta nahikoa denborarekin, enpresariari informazio zehatza eta nahikoa, argia eta ulergarria eman beharko dio, honela:

a) Turismo-erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratua denean, lege honetako I. eranskinean jasotako informazio-formulario normalizatuaren eta formulario horretako 3. zatian aurreikusitako informazioaren bidez.

b) Iraupen luzeko opor-produktuaren kontratua denean, II. eranskinean jasotako informazio-formulario normalizatuaren eta formulario horretako 3. zatian aurreikusitako informazioaren bidez.

La información precontractual prevista en esta Ley estará a disposición del consumidor en todo momento durante el acto promocional.

3. Un derecho de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico o un producto vacacional de larga duración no podrán comercializarse ni venderse como inversión.

Artículo 8. Requisitos de la información.

La información que con arreglo a esta Ley se ha de proporcionar al consumidor, ya sea con carácter previo al contrato, o para la formalización del mismo, así como durante su vigencia, constará en papel o en cualquier otro soporte duradero.

Por soporte duradero se entiende todo instrumento que permita al consumidor o al empresario almacenar la información que se le haya dirigido personalmente, de forma que pueda consultarla en el futuro mientras que sea necesario en atención a la finalidad de la información y que permita reproducirla sin alteraciones.

El incumplimiento de las previsiones contenidas en el párrafo anterior del presente precepto, facultará al consumidor para resolver la relación contractual, bastando para ello notificación fehaciente al empresario, en la que se ponga de manifiesto la falta de información que el consumidor considere no proporcionada o suficiente, recayendo la carga de la prueba de la verdadera existencia y suficiencia de la misma en el empresario y, todo ello, sin perjuicio del derecho de desistimiento regulado en la presente Ley, ni de las sanciones que se pudieran imponer al empresario conforme al artículo 22 de la misma.

Artículo 9. Información precontractual.

1. Con suficiente antelación a la prestación del consentimiento por el consumidor a cualquier oferta sobre los contratos a que se refiere este Título, el empresario deberá facilitarle información precisa y suficiente, de forma clara y comprensible, del siguiente modo:

a) Cuando se trate de un contrato de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, mediante el formulario de información normalizado recogido en el anexo I de esta Ley y la información prevista en la parte 3 del mismo.

b) Cuando se trate de un contrato de producto vacacional de larga duración, mediante el formulario de información normalizado recogido en el anexo II y la información prevista en la parte 3 del mismo.



c) Birsalmenta-kontratua denean, III. eranskinean jasotako informazio-formulario normalizatuaren eta formulario horretako 3. zatian aurreikusitako informazioaren bidez.

d) Truke-kontratua denean, IV. eranskinean jasotako informazio-formulario normalizatuaren eta formulario horretako 3. zatian aurreikusitako informazioaren bidez.

2. Enpresariak doan emango du artikuluko honen 1. paragrafoan aipatzen den informazioa, dela paperean, dela kontsumitzailearentzat sarbide errazekoa den beste edozein euskarri iraunkorretan.

3. Informazioa kontsumitzailea bizi den edo herritartasuna duen estatu kideko hizkuntzan edo hizkuntzetako batean idatziko da, betiere kontsumitzaileak aukeratutakoan, baldin eta Europar Batasuneko hizkuntza ofiziala bada.

Kontsumitzailea Espainian bizi bada edo enpresariak bertan jarduten badu, kontratua gaztelaniaz idatziko da, eta, alderdietakoren batek eskatzen badu, kontratua egiten den tokian ofiziala den Espainiako gainerako hizkuntzaren batean idatzi ahalko da, halaber.

4. Enpresariak kontratuaren aurretiko informazio guztia argitaratu ahal izango du enpresaren web-orrian edo berak aukeratzen duen lanbide-elkartearen edo enpresa-elkartearen web-orrian; gainera, hura etengabe eguneratzeaz gain, web-orria eraginkor mantendu beharko du informazio horren xede diren eskubideak merkaturatzen diren bitartean.

10. artikulua. Uko egiteko eskubideari eta aurrerakinak ordaintzeko debekuari buruzko ohartarazpena.

Aurreko artikuluan aurreikusi moduan, kontratua egin aurretik enpresariak esplizituki jakinaraziko dio kontsumitzaileari kontratuari uko egiteko eskubidea duela eta eskubide hori baliatzeko duen epearen iraupena; horrez gain, epe horretan aurrerakinak ordaintzea debekatuta dagoela jakinaraziko dio, 13. artikuluan adierazten den moduan.

III. KAPITULUA Kontratua gauzatzea

11. artikulua. Kontratuaren forma eta edukia.

1. Turismo-erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuak, iraupen luzeko opor-produktuen kontratuak, eta birsalmenta- eta truke-kontratuak idatziz formalizatuko dira, paperean edo beste euskarri iraunkor batean;

c) Cuando se trate de un contrato de reventa, mediante el formulario de información normalizado recogido en el anexo III y la información prevista en la parte 3 del mismo.

d) Cuando se trate de un contrato de intercambio, mediante el formulario de información normalizado recogido en el anexo IV y la información prevista en la parte 3 del mismo.

2. La información a que se refiere el apartado 1 de este artículo será facilitada, con carácter gratuito, por el empresario en papel o en cualquier otro soporte duradero que sea fácilmente accesible para el consumidor.

3. Dicha información se redactará en la lengua o en una de las lenguas del Estado miembro en que resida el consumidor o del que este sea nacional, a su elección, siempre que se trate de una lengua oficial de la Unión Europea.

Si el consumidor es residente en España o el empresario ejerce aquí sus actividades, el contrato deberá redactarse además en castellano y, en su caso, a petición de cualquiera de las partes, podrá redactarse también en cualquiera de las otras lenguas españolas oficiales en el lugar de celebración del contrato.

4. El empresario podrá publicar íntegramente la información precontractual en la página web de la empresa, o en la página web de una asociación profesional o empresarial de su elección, siendo responsable de su permanente actualización y debiendo mantener operativa dicha página mientras dure la comercialización de los derechos objeto de esta información.

Artículo 10. Advertencia sobre el derecho de desistimiento y prohibición de pago de anticipos.

Antes de la celebración del contrato, en la forma prevista en el artículo anterior, el empresario pondrá explícitamente en conocimiento del consumidor la existencia del derecho de desistimiento y la duración del plazo para ejercerlo, así como la prohibición del pago de anticipos durante dicho plazo, contemplada en el artículo 13.

CAPÍTULO III Formalización del contrato

Artículo 11. Forma y contenido del contrato.

1. Los contratos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, de producto vacacional de larga duración, de reventa o de intercambio, se formalizarán por escrito, en papel o en otro soporte duradero, y se redactarán, en un tamaño



tamaina tipografiko eta inprimatze-kontraste egokian idatziko dira, irakurterrazak izan daitezen, kontsumitzailea bizi den edo herritartasuna duen estatu kideko hizkuntzan edo hizkuntzetako batean, betiere hark aukeratutakoan, baldin eta Europar Batasuneko hizkuntza ofiziala bada.

Kontsumitzailea Espainian bizi bada edo enpresaburuak bertan jarduten badu, kontratua gaztelaniaz idatziko da, eta, alderdietakoren batek eskatzen badu, kontratua egiten den tokian ofizial den Espainiako gainerako hizkuntzaren batean idatzi ahalko da, halaber.

2. Kontsumitzaileari eskainitako kontratuaren aurretiko informazioa ere –behar bezala sinatuta– kontratuaren parte izango da eta ez da inola ere aldatuko bertan parte hartzen duten alderdiek aurkakoa adierazi ezean, edo aldaketa horiek ezohiko, ezin aurreikusizko eta enpresariaren borondatearen aurkako egoeren eraginez gertatu badira eta, bitarteko guztiak erabilita ere, horien ondorioak saihestu ezin izan badira.

Aldaketa horiek kontsumitzaileari jakinaraziko zaizkio, paperean edo harentzat sarbide errazekoa den beste edozein euskarri iraunkorretan, kontratua egin aurretik eta bertan esanbidez aipatuta.

3. Gainera, kontratuan alderdi bakoitzaren nortasuna, helbidea eta sinadura jasoko dira, baita kontratua noiz eta non egin den ere.

4. Kontsumitzaileak aparte sinatuko ditu uko egiteko eskubideari eta aurrerakinak ordaintzearen debekuari dagozkion kontratu-klausulak.

Kontratuak uko egiteko formulario normalizatu bat izango du beste agiri batean, V. eranskinean agertzen den moduan.

5. Kontsumitzaileak kontratuaren eta haren eranskinen kopia bat jasoko du, gutxienez, hura sinatzen den unean.

IV. KAPITULUA

Uko egiteko eskubidea, aurrerakinak ordaintzeko debekua, iraupen luzeko opor-produktuen kontratuak eta osagarriak

12. artikulua. Uko egiteko eskubidea.

1. Lege honetan arautzen diren kontratuetan, kontsumitzaileak uko egiteko eskubidea izango du inolako justifikaziorik eman beharrik izan gabe.

Lege honetan xedatutakoaren arabera arautzerik ez bada, uko egiteko eskubidea Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bateginaren

tipográfico y con un contraste de impresión adecuado que resulte fácilmente legible, en la lengua o en una de las lenguas del Estado miembro en que reside el consumidor o del que este sea nacional, a su elección, siempre que se trate de una lengua oficial de la Unión Europea.

Si el consumidor es residente en España o el empresario ejerce aquí sus actividades, el contrato deberá redactarse además en castellano y, en su caso, a petición de cualquiera de las partes, podrá redactarse también en cualquiera de las otras lenguas españolas oficiales en el lugar de celebración del contrato.

2. La información precontractual facilitada al consumidor, debidamente firmada por éste, formará parte integrante del contrato y no se alterará a menos que las partes dispongan expresamente lo contrario o cuando los cambios se deban a circunstancias anormales, imprevisibles y ajenas a la voluntad del empresario y cuyas consecuencias no se hubieran podido evitar pese a toda la diligencia empleada.

Estos cambios se comunicarán al consumidor, en papel o en cualquier otro soporte duradero fácilmente accesible para él, antes de que se celebre el contrato y deberán constar explícitamente en éste.

3. Además, en el contrato figurará la identidad, el domicilio y la firma de cada una de las partes, y la fecha y el lugar de celebración del contrato.

4. Las cláusulas contractuales correspondientes al derecho de desistimiento y a la prohibición del pago de anticipos serán firmadas aparte por el consumidor.

El contrato incluirá, asimismo, un formulario normalizado de desistimiento en documento aparte, según figura en el anexo V.

5. El consumidor recibirá al menos una copia del contrato con sus anexos en el momento de su celebración.

CAPÍTULO IV

Derecho de desistimiento, prohibición de anticipos, contratos de productos vacacionales de larga duración y accesorios

Artículo 12. Derecho de desistimiento.

1. En los contratos regulados en esta Ley, el consumidor tendrá derecho de desistimiento sin necesidad de justificación alguna.

En defecto de lo dispuesto en la presente Ley, el derecho de desistimiento se regirá por el texto refundido de la Ley General para la Defensa de Consumidores y Usuarios y otras leyes



arabera –azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onartua– arautuko da.

2. Horretarako epea hamalau egun naturalekoa izango da, eta honela kalkulatu da:

a) Kontratua edo aurretiko edozein kontratu lotesle egin den egunetik aurrera zenbatzen hasita, kontsumitzaileak kontratu-agiria momentu horretan jaso badu, edo bestela, kontratu-agiria jasotzen duen unetik aurrera.

b) Enpresariak 11.4 artikuluan aurreikusitako uko egiteko formularioa bete eta hura kontsumitzaileari eman ez badio, kontsumitzaileari uko egiteko formularioa behar bezala beteta ematen dion unetik aurrera; edonola ere, kontratua edo aurretiko edozein kontratu lotesle egiten den egunetik, edo kontratu-agiria jasotzen den egunetik kontatzen hasita urtebete eta hamalau egun natural igaro ondoren amaituko da epea.

c) Enpresariak ez badio kontsumitzaileari 9. artikuluan aipatutako kontratuaren aurretiko informazioa eman, formularioak barne, epea informazio hori ematen denetik aurrera hasiko da kontatzen, eta kontratua edo aurretiko edozein kontratu lotesle egiten den egunetik kontatzen hasita hiru hilabete eta hamalau egun natural igaro ondoren amaituko da, baldin eta une horretan kontsumitzaileak kontratu-dokumentua jaso badu, edo, bestela, dokumentu hori jasotzen denetik kontatzen hasita.

3. Truke-kontratua turismo-erabilerako ondasunen txandakako aprobetxamendu-kontratuarekin batera eta aldi berean ematen bazaio kontsumitzaileari, bi kontratuetan uko egiteko epe bakarra aplikatuko da, aurreko paragrafoetan adierazitakoari jarraiki.

4. Kontsumitzaileak modu frogagarrian jakinaraziko dio enpresariari uko egingo duela, idatziz edo beste euskarri iraunkor batean, eta V. eranskineko formularioa erabili ahal izango du horretarako. Jakinarazpena legezko epean egin edo bidali beharko da eta eraginkorra izango da, enpresariak jasotzen duen eguna gorabehera.

5. Kontsumitzaileak uko egiteko eskubidea baliatzen badu, kontratua ondorerik gabe utziko du.

6. Uko egiteko eskubidea erabiltzen duen kontsumitzaileak ez du inolako kosturik ordaindu beharrik izango, ezta uko egin aurretik eman ahal izan den zerbitzuari dagozkion kontraprestaziorik ere.

complementarias, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre.

2. El plazo para su ejercicio es de catorce días naturales y se computará:

a) A contar desde la fecha de celebración del contrato o de cualquier contrato preliminar vinculante, si en ese momento el consumidor recibió el documento contractual o, en otro caso, desde la recepción posterior de dicho documento.

b) Si el empresario no hubiere cumplimentado y entregado al consumidor el formulario de desistimiento previsto en el artículo 11.4, el plazo empezará a contar desde que se entregue al consumidor el formulario de desistimiento debidamente cumplimentado y vencerá, en cualquier caso, transcurrido un año y catorce días naturales a contar desde el de la celebración del contrato o de cualquier contrato preliminar vinculante o el de la recepción posterior del documento contractual.

